



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

EBAZPENA, DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ZUZENDARIARENA, BULEGOAK IZAPIDETZEN DITUEN ARAU-HAUSTE EDO ZEHAPEN PROZEDURETAN INSTRUKTOREA IZENDATZEKO TXANDEN SISTEMA OBJEKTIBOA EZARTZEN DUENA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 29.5 artikulua honako hau xedatzen du: *"Zigor-arauek edo arlokako antolaketa-arauek sistema objektiboa ezarriko dute kasu bakoitzean jardungo duen izapidegilea zehazteko. Ebazpen-organo eskudunak ezin izango du izapidegilea hautatu".*

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duen 308/2005 Dekretuaren 14. artikulua xedatzen du zehapen prozedurak Ofizios hasiko diela Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren ebazpen bidez, eta hasteko erabakiak, besteak beste, prozeduraren instruktorearen izendapena ere jaso beharko duela.

Artikuluaren hirugarren idatz-zatiak honakoa dio *"Datuak Babesteko Euskal Bulegoko funtzionario letradu bat izango da instrukzio-egilea, bat baino gehiago egonez gero txanda sistema objektibo bati jarraituzko zaio. Instrukzio-eginkizuna betetzeko ez du izango inolako funtzio-menpekotasunik".*

Instruktoreen txanda ordenatzeko, honakoa

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Izaera orokorrarekin arau-hauste eta zehapen prozedura izapidetzeko, "Aholkularitza eta Ikuskaritza Unitateko" langileen artean txandak egingo dituzte modu korrelatiboan eta bidezko banaketa eginez, gaien erregistroko ordenaren arabera.

Instrukturen esleipena eta izendapena bere horretan mantenduko da harik eta instrukzioa bukatu arte, arrazoi justifikaturen bat izan ezean; eta, halakorik badago, txandan sartuko da berriro, tokatzen den txandaren arabera. Hona arrazoi justifikatuak:

- Gaixotasuna, postua hutsik egotea, erretiroa edo era guztietako ausentzia luzeak.
- Abstentzio eta errefusatze-kasuak.

Bigarrena.- Lehenengo atalean adierazitako moduan egin beharrean, beste era batera ere egin ahal izango da banaketa, baldin eta:

- Beste kasu batzuen oso antzekoa bada. Halakoetan, antzekoak diren beste kasuen ardura duen instruktore berari esleituko zaio.
- Gaiaren berezitasuna.
- Lan karga.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 1a



Irati Pariente de Prada
Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria